



## **EUSKADIKO GARDENTASUN-LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA**

---

Txosten hau Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak eskatuta landu da, bat etorrira Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen 20. artikulua –martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartu zuen; hemendik aurrera, Berdintasunerako Legearen testu bategina– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitutako eskumenarekin.

Txostenaren helburua da egiaztatzea behar bezala aplikatzen direla bai Berdintasunerako Legearen testu bateginaren 20. artikulua, bai, halaber, generoaren gaineko eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak –zeinak Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Akordioaren bidez onetsi baitziren–, eta, horrekin batera, hobekuntza-proposamenak egitea.

Hau da lege-aurreproiektuaren xedea:

- Herritarrek informazio publikoa irispidean izateko duten eskubidearekin batera, jarduera publikoak gardenak eta publikoak izan daitezela arautu eta bermatzea.
- Herritarren parte-hartzea bultzatzeko oinarrizko esparrua eratzea, interes publikoko erabakiak diseinatu eta hartzeko.
- Lege honetan xedatutako betebeharrak eta obligazioak ez betetzeagatiko erantzukizunaren eta bermeen araubidea ezartzea.
- Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko den otsailaren 20ko 2/2023 Legean aurreikusitako informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzea.

Beraz, xedapen orokorra ebaluatu behar da zer-nolako genero-eragina duen ikusteko, lehenengo jarraibidearen 2.1 apartatuan ezarritakoarekin bat etorriz. Horretarako, araua sustatu duen organoak generoaren gaineko eraginari buruzko txostena idatzi du. Bada,

bertan, proposamenak emakumeen eta gizonen egoeran izan dezakeen eragina egiaztatu da. Horri dagokionez, komenigarria iruditzen zaigu adieraztea txosten horrek betetzen duela Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritakoa, baina ez duela 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartzen den Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen Testu Bateginaren 20.3 artikuluan xedatutakoaren arabera betetzen.

Azken batean, generoaren gaineko eraginari buruzko txostena generoaren gaineko eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideen I. eranskinean aurreikusitako baldintzetan bete behar zen –jarraibide horiek Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartu ziren–, lehenengo jarraibidearen 3. eta 4. ataletan aurreikusitako baldintzetan.

**Generoaren gaineko eraginaren aurreko ebaluazioak** nahitaez jaso behar du, berezita, arauak ondorioak izango dituen eremuan emakumeek eta gizonek duten presentziari buruzko informazioa; hartara, sexuaren arabera egon daitezkeen alde aurreko desberdintasunak identifikatzeko eta, horren arabera, arauak hautemandako desberdintasunak murrizten edo ezabatzen eta aplikatuko den gizarte-testuinguruan berdintasuna sustatzen lagunduko duen ebaluatzeko. Eta horri dagokionez, adierazi behar dugu Gobernantza Sailak bidalitako txostenak, aurreproiektuaren edukia garatzean emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak kontuan hartu behar direla adierazten badu ere, ez duela inolako daturik ematen edo aztertzen abiapuntuko egoerari buruz; beraz, zaila da aurreproiektuaren benetako eragina eraginkortasunez ebaluatzea, eta arauak eragin positiboa izango duela esatea, irregulartasunak salatzen soilik oinarritzen bada.

Orientazio gisa, besteak beste, txostenak honako informazio hau jaso eta eman zezakeen:

- Emakumeen eta gizonen parte-hartzearen analisia. Parte hartzeko prozesuak, tipologia, esku hartzeko eremuak...
- Elkarte, erakunde edo interes-taldeen parte-hartzearen ezaugarriak.
- Diseinuan pertsonen edo kolektiboen heterogeneotasuna kontuan hartzen duen eta genero-ikuspegia txertatzen duen ikuspegi inklusiboa barne hartzen duten parte hartzeko prozesuak.

- Teknologia berriak eskuratzeari buruzko informazioa, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT) dagoen genero-arrakala agerian jar dezakeena.
- Erabakiak hartzeari buruzko informazioa.
- Gizarte-arauei eta balioei buruzko informazioa. Parte hartzeko prozesuek erregulazioan duten garrantzia kontuan hartuta, gomendatzen da, halaber, emakumeen parte-hartzea sustatuko duen kultura parte-hartzaile inklusiborik eza aztertzea, espazio publikoan sartzeko zailtasunak kontuan hartuta.

Bestalde, diskriminazioa saihesteko eta berdintasuna sustatzeko arauak betetzeari dagokionez, arauak honako neurri hauek jasotzen ditu:

- IV. tituluaren (Herritarren parte-hartzea) 55. artikulua (Parte-hartzea sustatzeko neurriak) aurreikusten du genero-ikuspegia txertatzea sentsibilizazio- eta prestakuntza-programetan, bai herritarrentzat, bai haien zerbitzura dauden langileentzat, programa horiek herritarren arteko asoziazionismoa, herritarren parte-hartzea eta garapen komunitariorako lankidetzak-praktika pribatuak edo publiko-pribatuak sustatzera bideratuta egonik.
- 82. artikulua (Gardena Aholku Kontseilua) aurreikusten du haren osaerak emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izango duela, gaikuntza, konpetentzia eta prestakuntza egokia izanik.

Haatik, eta genero-ikuspegia txertatzeko bidean aurrera egiteko, gogoeta eta hobekuntza-proposamen hauek egin dira:

- a) I. tituluari (Xedepan orokorrak) dagokionez:
  - Gomendatzen da 5. artikuluan (Gardentasun-konpromiso orokorrak) aintzat hartzea herritarren eskura jartzen den informazio publikoan hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiliko dela, Berdintasunerako Legearen testu bateginaren 19.4 artikuluan aurreikusitakoa betetzeko.
  - II. tituluari dagokionez (Jarduera publikoaren gardentasuna), komenigarria litzateke sexuaren arabera bereizita argitaratzea eragin ekonomikoa duten administrazio-jarduerari buruzko datuak eta informazioa, kontratuei buruzko informazioa eta gardentasun-legearen aurreproiektuaren 18., 19. eta 22. artikuluetan, hurrenez hurren, araututako interes orokorreko informazioa.

Argitaratzen den informazio estatistiko guztiak Berdintasunerako Legearen testu bateginaren 17. artikulua bete behar du. Gogoan izan behar da hori.

Halaber, komenigarria litzateke argitaratu beharreko informazio gisa sartzea berdintasun-irizpideak txertatu dituzten dirulaguntzen, laguntzen, kontratuen edo hitzarmenen zerrenda, Berdintasunerako Legearen testu bateginaren 22. eta 23. artikulua betetz.

- b) Era berean, IV. tituluan (Herritarren parte-hartzea) jasotako herritarren parte-hartze eta lankidetzarako erregistroari dagokionez, eta genero-ikuspegia modu eraginkorrean txertatzen dela bermatzeko, Berdintasunerako Legearen testu bateginaren 17. artikulua araber, EAEko botere publikoek nahitaez sartu behar dute sexuaren aldagaia pertsonen buruzko datuak biltzeko edozein jardueratan.

Era berean, komenigarria litzateke herritarrei, sustatzaileei edo askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeen ordezkari buruzko datuak sexuaren arabera bereizita biltzea, bai eta beste aldagai edo faktore batzuen eragina hobeto ezagutu ahal izateko adierazle berriak ezarri eta sartzea ere, hala nola Erregistroan inskriba daitezkeen erakunde ezaugarri buruzko informazioa, haien osakerari, erabakiak hartzeari eta abarri dagokienez; hartara, emakumeek eta gizonen parte hartzeko prozesuetan zein neurritan eta zer eremutan parte hartzen duten jakiteko.

Interesgarria litzateke jakitea, halaber, talde horiek emakumeen eta gizonen berdintasuna defendatzen edo sustatzen duten interesak aintzat hartzen dituzten.

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduketara gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrak kontuan hartuta, gomendatzen da aurreproiektuan *ikuspegi interseksionala*<sup>1</sup> banan-banan eta bereizita *txertatzea*, genero-ikuspegia txertatzearekin batera. Politika publikoetako ikuspegi interseksionalak esan nahi du kontuan hartu behar dela sexua edo generoa eta bereizkeria-egoerak eragin ditzaketen (arraza, kolorea, jatorri etnikoa edo soziala, hizkuntza, erlijioa, kultura... eta Berdintasunerako

---

<sup>1</sup> 3.8.– Ikuspegi interseksionala txertatzea.

EAEko botere publikoek ikuspegi interseksionala sustatu behar dute beren politika publikoetan, eta horrek esan nahi du, lege honen ondorioetarako, kontuan hartu behar dela nola sexuak edo generoak harremana duen 3.1 artikulua azken atalean aipatutako gainerako faktoreekin, maila askotan eta maizaldi berean, nola sortzen diren identitate gainjarriak eta interseksionatuak, bai eta egoera eta botere- eta zapalkuntza-ardatz desberdinak eta elkarri lotutakoak ere.

Legearen testu bateginaren 3.1 artikulua azken atalean aipatutako gainerako faktoreak direla kausa) gainerako faktoreak elkarrekin nola erlazionatzen diren.

Horrela, parte-hartzea sustatzeko neurriei buruzko 55.1 artikulua honela idatzita geratuko litzateke: «*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, herritarren asoziazionismoa, parte-hartzea eta garapen komunitarioko lankidetzak-praktika pribatuak edo publiko-pribatuak sustatzeko xedez, sentsibilizazio- eta prestakuntza-programak sustatu eta egingo ditu, genero-ikuspuntua txertatuta, eta bere zerbitzura diharduten langileei zein herritarrei zuzenduko zaizkie, parte hartzeko prozeduren berri jakin eta erabil ditzaten*».

- Parte-hartzeari eta lankidetzari buruzko txostenari dagokionez (58. artikuluan arautzen da), gogorarazi behar da bertan genero-ikuspegia txertatu behar dela, Berdintasunerako Legearen testu bateginaren 3.5 artikulua arabera<sup>2</sup>, eta parte-hartzeari buruzko datuak sexuaren arabera bereizita bildu, bai eta egindako proposamenen tipologia ere.
- Azkenik, lege-proiektuaren gaztelaniazko bertsioan modu maskulinoan bakarrik adierazita dauden terminoak berrikusi eta egokitu behar dira, besteak beste: «*los ciudadanos*», «*los informantes o alertadores*», «*los responsables*», «*los beneficiarios*», «*los altos cargos*», «*los empleados públicos*» eta «*los menores de edad*», Berdintasunerako Legearen testu bateginaren 19.4 artikuluan aipatzen den hizkuntzaren erabilera ez-sexistarekin bat etorriz. Hizkera ez-sexista erabiltzeko, lagungarri izan daitezke Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak argitaratu dituen gidaliburuak, haren webgunean eskuragarri daudenak: <https://www.emakunde.euskadi.eus/informazioa/gidak/webema01-contentpubli/eu/>.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuak 4

---

<sup>2</sup>3.5. Genero-ikuspegia txertatzea.

EAEko botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, haietan guztietan ezar dadin desberdinkeriak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra.

Lege honen ondoretarako, honetara ulertu behar da genero-ikuspegia txertatzea: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrezko desberdinak sistematikoki kontuan izatea eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horiek planifikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketak zehatzak gehitzea.